

Arzalluz: «Onaindia nazionalismo espainiarraren koartada bihurtu da»

«Etnia garbitasunerako funtzionari bokazioa» egotzi dio Onaindiak Arzalluzi

Hitz gogorak idatzi dizkiote elkarri Xabier Arzalluz eta Mario Onaindiak egunotan komunikabideetara bidalitako artikuluetan. «Etnia garbitasunerako funtzionari bokazioa» egotzi zion herenegun Onaindiak Arzalluzi. «Nazionalismo espainiarraren koartada» bihurtu dela ziotson atzo Arzalluzek Onaindiari.

DONOSTIA

EAJ eta PSE-EE proiektuaren bultzaileren arteko eztabaidaren tonua gogortu egin da azken egunotan Xabier Arzalluzek eta Mario Onaindiak idatzi dituzten artikuluekin.

Joan den igandean, 'Deia-n' idatzitako artikuluan, Xabier Arzalluzek Mario Onaindia eta Kepa Aulestiari independentzia aldarrikatzetik proiektu espainiar bat defenditzera pasatu izana leporatzen zien eta EEko buruzagi ohien iragana ekartzen zuen gogora.

Asteartean, Mario Onaindiaren erantzuna argitaratu zuten 'Deia', 'El Correo Español', 'El Mundo' eta 'Diario 16' egunkariak. «Ez dakit zer den tamalgariagoa Xabier Arzalluzentzat: ni erakunde terrorista bihurtu aurretiko ETAko kide izana ala indarkeria utzi izana eta Euskadin gazte batzuek terrorismoraino eramane dituzten ideiak eta planteamendu politikoak gaitzetsi izana», idatzi zuen Mario



PSE-PSOE eta EEren arteko bategiteak Onaindia eta Arzalluzen arteko eztabaida eragin du.

SIMAL

Onaindiak asteartean argitaratutako artikuluan.

Mario Onaindiak «etnia garbitasunerako funtzionariaren bokazioa» izatea leporatu dio Xabier Arzalluzi. «Oso gustukoa izango luke zein den nazionalista eta zein ez esatea, zein den euskal herritarra eta zein ez, eta orain ari da esaten zein den unibertsitaria eta zein ez», gaineratu zuen Onaindiak bere artikuluan. «Ezin nuen imajinatu euskal nazionalista batek nire iragana antifrankista aurpegiatzea, zeren eta nire harremana ETArekin Franco hil baino askoz lehenago amaitu

baitzen», adierazi zuen aurrerago EEko kideak.

XABIER ARZALLUZEN ERANTZUNA

Xabier Arzalluzek 'Deia-n' argitara emandako bigarren artikuluan baten bidez erantzun zion atzo Onaindiari. «Ez dut inoiz gaitzetsi tiranoaren kontra arma bidez borrokatzeko eskubidea, ezta ere erresistentzia eskubidea, ezta tiranizidiora ere», idatzi zuen atzo Arzalluzek.

Independentzia, «armak eskuan» eskatzetik «nazionalismo espainiarraren koartada» izatera jauzi egitea leporatzen dio buru-

zagi jeltzaleak Onaindiari. «Zuk horri eboluzioa deitzen badiozu, larru gorritan uzten duzu Darwin. Hori ez da eboluzioa, jauzi genetikoa baizik», idatzi zuen atzo Xabier Arzalluzek.

Jon Idigorasek bere iritzia eman zuen EAJ eta PSOEn arteko eztabaida honi buruz. Bere ustez, «ez da berria, hauteskundeak hurbiltzen diren bakoitzean elkarren kontra gauzak jaurtitzeko hasten baitira». Eztabaida honekin, PSOEk eta EAJk beren erantzukizunetatik «arreta desbideratu» nahi dutela uste du Idigorasek.

Abokatuak azaldu ez eta Unai Paroten kontrako epaiketa atzeratu egin da

MADRIL

Unai Parot euskal presoaren kontra atzo Madrilgo Entzutegi Nazionalan egitekoa zen epaiketa atzeratu egin zen, defentsaren abokatuak ez baitziren agertu. Jakina denez, defentsarako lanak era egokian prestatzeko jasaten dituzten oztupoak direla medio epaiketetara ez joatea erabaki zuten iazko udan euskal presoan abokatuak beren eskakizunei konponbiderik ematen ez zaien bitartean.

Hala ere, Auzitegiko presidentek epaiketarako deialdia egin zuen atzo, akusatua, fiskala, lekukoak eta itzultzaileak gelan baitzeuden. Berak azaldu zuenez, bista hasi baino minutu batzuk lehenago Unai Parotekin bildu ziren bere abokatuak Entzutegi Nazionalako ziegietan.

✓ Fiskalak 140 urteko kartzelaldia eskatzen du Parotentzat ustez hiru bonba-auto jartzeagatik.

ABOKATUEN IDAZKIA IRAKURRI

Auzitegiko idazkariak abokatuaren idazki bat irakurri zuen. Bertan esaten zenez, presoaren defentsa aurrera eramateko Espetxe Erakundeek jartzen dizkieten arazoengatik uko egin zioten epaiketan agertzeari, eta arazoa konpontzeko ezer ez egitea leporatu zieten Gobernuko zein Justiziako agintariei. Beren ustez, oraingo

egoeran presoak babesgabe daude, beren defentsa eskubidea mugatuta dute eta ez dago defentsarako beharrezko bermerik, idazkian abokatuak ziotenez.

Fiskalak euskal abokatuaren kontrako zigor espedita bat irekitzea proposatu zuen beren arrazoiak azal ditzaten. Aldi berean, defentsa lanak egiteko behar dutena azaltzeko eskatu zien abokatuari eta erraztasunak ematearen alde agertu zen.

Konklusio tan fiskalak hiru bonba-auto jartzeaz akusatatu zuen Unai Parot. Aipatutako ekintzetan pertsona bat hil eta beste batzuk zauritu ziren.

Fiskalak 140 urteko kartzelaldia eskatzen du Unai Parotentzat, berari egotzen baitzitzio heriotza delitu bat, lau heriotza saio, atentatu saio bat eta kalte delitu bat.

Hernandez: «Abokatuaren jarrera ez dago zuzenbideari lotuta»

MADRIL

Eligio Hernandez Estatuko fiskal nagusiak adierazi zuenez, euskal presoaren abokatuak epaiketetara ez joateko hartu duten erabakia «zuzenbidearekin zerikusirik ez daukan jarrera da».

Clemente Auger Entzutegi Nazionalako presidentearekin bildu zen atzo Eligio Hernandez Entzutegian bertan eta bileraren amaieran egin zituen adierazpenok. Abokatuaren jarrera dela medio, Hernandezek bere kezka azaldu zuen kazetarien aurrean. Izan ere, erabaki horrek zenbait epaiketa etetea ekarri du, azken kasua atzo gertatu zelarik.

Arazo hau izan zen Hernandez eta Augerren arteko bileran jorratutako gai nagusia, fiskal nagusiak aitortu zuenez. Bere esanetan, egoerari konponbidea eman diezaioketen neurriak har-

Ardanza «minduta» PSE eta EEren fusio txostenak dioenagatik

GASTEIZ

«Oso minduta» eta «za puztua» agertu da Jose Antonio Ardanza, Euskal Autonomi Elkartearen lehendakaria, PSE-PSOE eta EEk beren bategiterako landu duten txosten ideologikoaren edukia dela eta. Horrelako batasun prozesuaren alde agertu zen, «beti ere, herrialde honetako sigla politikoak argitzen badiutze».

PSE eta EEren arteko aipatu agiri politikoak EAJri leporatzen dio «herria egitura, baketu, lasaitu eta garapen maila egokian jartzeko gai ez izatea». Ardanzak herenegun Gasteizen esan zuenez, fustrazioa sortzen dio «horrelako proiektu politiko handinahiez eta EAJri alternatiba modura aurrera eramane nahi izateak, eta EAJri egindako gaitzespenak beste ezer ez eskaintzea».

«EAJ, PSE eta EEk osatzen duten koalizio gobernu bateko lehendakariarentzat etsigarria izateaz gain mingarria ere bada bi gobernuak beren jaiotza hirugarrenarekin sartzean oinarritu izana» adierazi zuen.

Jarrera honek hala ere, ez duela zergatik gobernuaren osaketan eragin behar uste du lehendakariak. «Egiten dituzten gogoeta horiek benetazkoa badira, egia dela pentsatzen badute, PSE eta EEk ondorio logikoa atera behar ko lituzkete» esan zuen.

Bestalde, autonomia azken hamabi urteetatik seitan PSEk jeltzaleekin batera gobernatu duela EAEn gogoratu du Jose Antonio Ardanza lehendakariak.

tu ahal izateko dauden arazo teknikoak aztertu zituzten. Arazo horiek konpondu eta gero, Fiskaltzak eta Entzutegi Nazionalak «irtenbide gogorra eta behin-betikoa bilatuko dugu elkarrekin», esan zuen Eligio Hernandez sozialistak.

Gai honi lotuta, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak (CGPJ), Javier Gomez de Liaño kideak hala eskatuta, presoaren abokatuaren jarreraren ondorioz sortutako egoerari buruzko txosten bat egitea erabaki zuen.

Joan zen udan hasi zuten euskal presoaren abokatuak epaiketetara ez agertzeko protesta ekintza, defentsa egokia prestatzeko bermerik ez zutela argudiatuz. Abenduan etenaldi bat egin ondoren, urtarrilean berrekin zioten protestari eta orain arte egitekoak ziren epaiketa guztiak atzeratu dira.